

IRAKURKETA MINTEGIA

2026-2027. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako liburuak erabiliko dira.
- 2026an kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketaren bitartekaritzan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2026an 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura obra guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea Galtzagorriren webgunean zintzilikatzeko.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitx Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegi Nagusian egingo dira saioak: Fermin Kalbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2026	2027	
Irailaren 19a	Urtarrilaren 16a	Apirilaren 17a
Urriaren 17a	Otsailaren 20a	Maiatzaren 15a
Azaroaren 14a	Martxoaren 20a	Ekainaren 5a
Abenduaren 12a		

FORMAZIO SAIO TRINKOA. Hitza ekintza denean...- Antzerkia irakurketaren bitartekaritzan

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain aurten formazio saio berri bat antolatu dugu. **Haur eta gazteentzako testu dramatikoak edo antzerkia izango da** prestakuntza saio honen ardatza.

Idoia Gereñu irakasle eta antzerkigile tolosarra eta **Intza Alkain** aktorea eta Haur eta Gazte Literaturan aditua gonbidatu ditugu. Ikastaroaren muina honakoa izango da: antzerkiak haur eta gazteak irakurketara hurbiltzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutu, adinez adin haur eta gazteekin landu daitezkeen praktikak aletu eta euskal haur eta gazte literaturako antzerki obrak edo antzerkia egiteko baliatu daitezkeen testuak zukutzen ikastea.

Honako edukiak eskainiko dituzte:

- Etapa ezberdinetan, haur eta gazteekin antzerkia egiteko oinarriak eta helburuak argitu.
- Haur eta gazteekin antzerkia egiteko balia daitezkeen euskarazko testuen bibliografia bat aurkeztu.
- Liburu horiek erraminta gisa erabiltzen erakutsi: horiekin egin daitezkeen bitartekaritza estrategiak aletu.

Saio monografikoa 2026ko **urriaren 31n** izango da, 10:00etatik 14:00etara, San Telmo museoko ekitaldi aretoan. Mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik norakoak eta izena emateko eman beharreko urratsak.



Galtzagorri elkarteak. Zemoria kalea 25, beheak. 20013 DONOSTIA
Telef.: 943 471 487 E-maila: administrazioa@ibbygaltzagorri.eus